

PENTSATZEKO
HITZORDUAK

Irakasleentzako
Gida

AURKIBIDEA

I. SARRERA	2
II. AURKEZPENA	4
Saioaren aurkezpena eta azalpena	4
Ikasgelako giroa	4
• Aurkezpen dinamikak	5
• Aktibazio dinamikak	7
III. SAIOA AURRERA ERAMATEKO ARAUAK ZEHAZTEN	9
IV. SAIOAREN GARAPENA	10
Banaketa	10
Bideoa	12
Taldearen interesak ezagutzea	14
Dialogoa	16
V. EBALUAZIOA	17
VI. ERANSKINAK	19

I. SARRERA

Ikertze Kultur Elkartek, Agorak eta EHUKo filosofia fakultateak antolatzen duten eta beste leku batzuen artean EHUKo Gipuzkoako kanpusean urtero aurrera eramaten den **Pentsatu!** festibalean parte-hartu, eta bizikidetza egokia lortzeko beharrezkoak diren ohiturak lantzeko zein sustatzeko asmoz, **Pentsatzeko Hitzorduak** deituriko tailer parte-hartzaile bat aurrera eramaten du.

Elkarrizketa filosofikoaz baliatuz, lanketa komunitarioa egin, eta taldeak gizarte demokratiko baterako ezinbestekoak diren balioak errespetatzea zein hauek praktikan jartzea da helburu nagusia; argudioak, entzute aktiboa, errespetua, autozuzenketa...

2020an, COVID-19ak eragindako pandemia dela eta, jaialdiaren atal hau bertan behera gelditu zenez, saio hauek ikastetxeetan aurrera eraman ahal izateko beharrezkoa den materiala sortzearen ideia bururatu zaigu, eta bi euskarri egin ditugu:

GIDA

Alde batetik, saioaren gida, txosten hau, zeinetan proposamena aurrera eraman ahal izateko, tailerraren haria pausoz pauso deskribatzen den.

BIDEO-TUTORIALA

Bestalde, gida horri laguntzeko asmoz, bideo-tutorial bat sortu dugu, zeinetan hezitzaileak izan beharreko rolaz gain, tailerra gidatzeko beharrezkoak diren irizpideak modu sakonago batean azaltzen diren:



Link-a:
[PENTSATZEKO HITZORDUAK](#)
[BIDEO-TUTORIALA](#)

Pasahitza: PHG

IRAUPENA



Saioaren garapenaren nondik norakoetan murgildu aurretik, esan, proposatzen dugun tailerraren iraupena **ordu eta erdikoa** izango dela gutxi gora behera.

BALIABIDEAK

Hau aurrera eramateko beharko diren baliabideei dagokienez, honako hauek dira funtsezkoak: **ordenagailua, proiektorea, bozgorailuak, aulkiak eta balorazioa egiteko erabiliko diren materialak.**



II. AURKEZPENA

Saioaren aurkezpena eta azalpena

Ikasgelan aurrera eramango den elkarrizketa modu egokian bideratu ahal izateko, funtsezkoa iruditzen zaigu ikasleriari tailerraren haria zein honen helburu nagusia ezagutaraztea.

Modu horretan, parte-hartzaileek, saioaren helburua, zergatia zein tailerrean zehar jorratuko diren edukiak ulertuko dituzte..

Ikasgelako giroa

Elkarrizketa filosofikoa modu egokian aurrera eramateko, beharrezkoa da ikasgelan giro osasuntsua sortzea eta horregatik, saioari hasiera emateko, zenbait dinamika ezberdin proposatzen ditugu; ikasle talde bakoitzaren perfilaren arabera erabaki daiteke hauetako zein erabili.

Bi motatako dinamikak deskribatuko dira jarraian:

- Aurkezpen dinamikak
- Aktibazio dinamikak


IRLAREN JOLASA



Dinamika hau aurrera eramateko, parte-hartzaile guztiak borobilean jarriko dira, zutik, eta elkarren izenak ezagutzeaz gain, memoria landuko dugu. Hezitzaileak hartuko du lehendabizi hitza, eta honako esaldi hau esango du: “Ni ... naiz eta irla bakarti batera, ... eramango nuke” (esaterako, “ni Naiara naiz eta irla bakarti batera liburu bat eramango nuke”). Behin hezitzaileak bere burua aurkeztuta, hurrengo parte-hartzaileak, hezitzailearen, hau da, bere ondoko kidearen, izena eta objektua esan beharko ditu bere buruaren aurkezpena egin aurretik; adibidez, “bera Naiara da eta irla bakarti batera liburu bat eramango luke, eta ni Jon naiz eta irla bakarti batera argazki bat eramango nuke”. Modu horretan, taldekide guztien izenak, bizpauru aldiz errepikatuko dira, errazagoa izango delarik parte-hartzaileentzat hauek ikastea.

ARTILEZKO HARI BOLAREN DINAMIKA

Partaide guztiak borobilean eta zutik jarritz hasten da dinamika. Hauetako batek, artilea hatz batean biribildu, eta bere buruaren aurkezpena bukatzean, beste pertsona bati pasatu behar dio hau. Dinamika bukatzerako armiarma-sare antzeko batek elkartuko ditu guztiak, eta honek sinbolizatu dezakeenaren inguruan hausnartuz bukatzen da dinamika.





IZEN BIDAIAIRIAK

Parte-hartzaile guztiak ikasgela edo espazio osoan zehar mugituko dira libreki eta hezitzaileak txalo egitean, pertsona bakoitzak bikotea aurkitu beharko du eta honi bere izena aurkeztu beharko dio. Parte-hartzaile batek bere bikotearen izena entzuten duen momentutik aurrera, bi hauen izenak trukatu egingo dira, hau da, Naiarak eta Mikelek bikotea osatzen badute, elkarri aurkeztu ostean, bi hauen izenak trukatu eta Naiara Mikel gisa aurkeztu beharko da hurrengo txandan, eta Mikel, Naiara gisa. Dinamika zenbait aldiz errepikatzen da, taldeko norbaitek, bere benetakoa izenarekin topo egin arte.

PISTOLADUNAK

Talde osoa zutik jarriko da borobilean, eta pertsona bat erdigunean jarriko da. Erdiko pertsonak, tiro egingo du, borobileko norbaiten izena esanez eta hura sinalatuz. Izendatutako pertsona, makurtu egin beharko da tiroa saihesteko eta honen aldamenean dauden bi jokalariek, duelu moduko bat izango dute; bestearen izena esaten duen lehena, bizirik aterako da eta motelenak tiroa jasoko du. Galtzailea erdian jarriko da, eta berriz hasiko da prozesua.



HITZ KATEAK

Parte-hartzaile guztiak borobilean jarri, eta hezitzaileak (kasu honetan irakasleak), hitz bat esanda, ikasleek horrekin lotura duen eta burura datorkien lehenengo hitza esan behar dute. Garrantzitsua da erantzunak ez epaitzea eta denek esan zein erantzun ahal izateko moduko erritmo bat bilatzea. Ariketa honen bidez, parte-hartzeko baldintzak sortzen lagunduko digu alde batetik, eta bestalde, gai jakin bati buruz taldeak zer aurreiritzi zein ideia dituen ezagutu ahal izango dugu.

NINJA

Talde osoa zutik jarriko da, borobilean, eta borobilaren arabera, txandak errespetatuz jolastu behar da. Helburu nagusia, bizirik jarraitzea da, eta horretarako, beste parte-hartzaileek zure eskuak ukitzea saihestu behar duzu. Beraz norbaitek eskua ukitzen dizun momentuan, esku hori galduko duzu.

Txanda bakoitzeko mugimendu bat soilik egin daiteke, eta hauek hiru motatakoak izan daitezke: erasoa, erasoa saihestea edota postura aldatzea. Mugimendua egin ostean, geldirik gelditu behar da, eta helburua, inguruan daukazun parte-hartzailearen bati eskua ukitzea da (borobilean dagoen edozein kideri). Dinamika, partaide guztiak, bat izan ezik, kaleratzean bukatzen da.



ETXEAK

Talde osoa zutik jarriko da eta hirukoteak osatuko dituzte; elkarren ondoan jarriko dira, eta izkinetan dauden bi kideek eskuak altxatuz, etxe bat osatuko dute. Erdian gelditzen den taldekidea, etxearen barruan sartu behar da. Behin hirukoteak sorturik, partaideetako bat ikasgelaren erdian geldituko da, eta mugitzeko eskatuko dio etxea osatzen duen kide bati, esaterako, “mugitu daitezela ezkerreko paretak”. Beraz, ezkerreko pareta gisa dauden partaide guztiak, lekualdatu, eta eskubiko pareta zein bizilaguna aurkitu beharko dituzte etxe berriak sortzeko. Hasiera batean erdigunean egon den parte-hartzaileak ere, etxea aurkitu beharko du, eta horregatik, beste partaide bat geldituko da ikasgelaren erdian. Bizpahiru aldiz errepikatuko da dinamika.



HAIZEAK ERAMAN DEZALA

Parte-hartzaileak baino aulki bat gutxiago jarriko dugu borobilean eta talde osoa eserita jarriko da. Pertsona bat erdigunera joan eta “Haizeak eraman dezala...” esaldia osatuko du, berak duen ezaugarri bat adieraziz (oso orokorra edo oso pertsonala den zerbait izan daiteke, esaterako, “Haizeak eraman dezala kamiseta beltza duena/futbola gustuko ez duena”). Esandakoarekin bat datozen guztiak zutitu egingo dira eta tokiz aldatuko dira, beste pertsona bat erdigunean geldituko delarik. Prozesua zenbait aldiz errepikatuko da.

III. SAIOA AURRERA ERAMATEKO ARAUAK ZEHAZTEN



Behin saioan zehar egingo dena aurkeztuta eta giroa berotzeko dinamikaren bat aurrera eramanda, tailerra ondo bideratzeko **arau edota printzipioen inguruko hausnarketa** irekitzea proposatzen da:

Parte-hartzaileei galde egingo zaie ea nolako elkarrizketa izan nahi duten, eta hau horrela izateko, zein irizpide errespetatu behar diren. Hausnarketaren ostean, elkarrizketa modu egoki batean aurrera eramán ahal izateko irizpideak zehaztuko dira talde osoaren artean. Bestalde, hezitzaileak, ikasleen iritziak oinarri gisa hartu, eta hortik bideratuko du elkarrizketa; funtsezkoa da ikasleei protagonismoa eman eta hauen esku uztea saioaren haria.

IV. SAIOAREN GARAPENA

BANAKETA

Ikasgeletan normalean, elkarrizketa parte-hartzaile bat izateko partaide gehiegi egoten dira, eta horregatik, taldea bitan banatzea proposatzen da; modu horretan, partaide guztiek izango dute elkarrizketan parte-hartzeko aukera. Talde bakoitzari rol bat esleituiko zaio:

1.TALDEA

Alde batetik, talde batek **elkarrizketa filosofikoa** mantenduko du.



2.TALDEA

Bestalde, gainontzeko kideak, **elkarrizketa behatzeaz** arduratuko dira.



Behaketarako, **1.Eranskina: Behatzaileen jarraibideak** orrian jasotzen diren irizpideak erabili daitezke.

IV. SAIOAREN GARAPENA


Espazioaren antolaketari dagokionez, esan, komunikazioa hobetze aldera, espazioa borobilean antolatzea gomendatzen dela, honek eragin zuzena izango baitu bai partaideen harremantzeko moduan, zein elkarrizketan bertan. Taldea bitan banatu ostean, borobil bi osatu eta bata bestearen barnean kokatuko dugu.

- **KANPOKO BOROBILA**

Kanpoko borobila osatzen duten horiek, **behatzaile lana** izango dute

- **BARRUKO BOROBILA**

Barruko borobilean dauden partaideek ordea, **elkarrizketan parte-hartzearen ardura**.




IV. SAIOAREN GARAPENA

BIDEOA

Hausnarketa bideratzeko, ikus-entzunezko baliabide bat erabiltzea proposatzen dugu, zehazki, **The Lunch Date** laburmetraia.

Bideo hau, bizikidetzaren gaiak barnebiltzen dituen aspektu ezberdinak lantzeko aproposa dela deritzogu (adibidez, aurreiritziak edo diskriminazioa). Izan ere, balio ugari biltzen dira laburmetraian, saioan parte-hartuko duen partaide bakoitzak iritzi ezberdina izan dezakeelarik hauetako bakoitzaren inguruan. Horrez gain, bideoan gai zehatz bat baino gehiago ukitzen direnez, taldeak berak erabakiko du nondik bideratu nahi duen elkarrizketa filosofikoa.

THE LUNCH DATE LABURMETRAIA



IV. SAIOAREN GARAPENA

Iraupena: 10 min.

Sinopsia:

Laburmetraiko protagonistak tren bat hartu beharra dauka, baina berandu iristen da geltokira eta trena badoala ikusten du. Hala ere, pantailetan begiratu, eta irteten ikusi duen trena, ez zela berea ohartzen da, eta berak hartu behar duena berandu datorrela. Horregatik, geltokiko jatetxera hurbiltzen da zerbait jatera. Mahai-tresnen bila joan, eta mahaira itzultzean, gizon bat ikusi du bere plateretik jaten. Hasiera batean, protagonista, haserretu egiten da, baina azkenean, ezezagunak, entsalada partekatzen du berekin. Hau bukatu ostean, gizonak, kafe bat ekartzen dio protagonistari eta agurtu egiten dira. Ezezaguna joan ondoren, protagonista, bere poltsak alboko mahaian daudela ohartzen da, bere entsalada ere, mahai horren gainean dagoelarik.

TALDEAREN INTERESAK EZAGUTZEA

IV. SAIOAREN GARAPENA

Elkarrizketari ekiteko eta hau guztien interesekoa dela bermatzeko, komenigarria da haien interesetatik abiatzea. Horregatik, ikasleen artean sortutako galderetaz hausnartzeko tarte bat hartzeak duen garrantzia azpimarratu nahiko genuke.

Laburmetraia ikusi ondoren bururatzen zaizkien galderak edota arreta deitu diena orri batean idazteko eskatuko zaie. Ondoren, bakoitzaren ekarpenak talde handian partekatuko dira eta hauek ordenagailuan edota arbelean idatziko dira (ekarpen bakoitzaren ondoan beraien izena jarri behar dute partaideek).



IV. SAIOAREN GARAPENA

Behin galdera edo harridura puntu guztiak jasota, guztien artean erabakiko da nondik abiatu beharko den elkarrizketa. Atera diren galderen eta denboraren arabera erabakiko da ekarpenen arteko harremanak egitea, hezitzaileak berak aukeratzea hauetatik bat edota ikasleren bati uztea aukeraketa.



IV. SAIOAREN GARAPENA

DIALOGOA

Hezitzailearen ardura izango da, elkarrizketa filosofikoa emateko behar diren baldintzak jartzea eta ikasleei galdera egokiak egitea hausnarketa burutu, ondorioetara iritsi eta ezagutzak lortu ahal izateko.

Horretarako, laburmetraiak lantzen dituen gai nagusien inguruko elkarrizketa sustatzeko galdera multzoa, zein elkarrizketa filosofiko batean, dialogoa sustatu eta gidatzeko orokorrean erabili daitezkeen irizpideak bildu ditugu **2. Eranskina: Dialogoaren plana dokumentuan.**





EBALUAZIOA

Saioa borobiltzeko eta jarduerarekin bukatzeko, saioan zehar bildutakoa partekatzeko zein azaltzeko eskatuko diegu behatzaileei. Modu horretan, elkarrizketa filosofikoan zehar hitz egiteko aukerarik izan ez duten arren, beraien espazioa eskainiko zaie gauzatu duten lana partekatu ahal izateko.


Probak puntuatzeko zenbakiak edo letrak erabiltzen ziren molde tradizionalekin hausteko, **irudi bidezko ebaluazioa** erabiltzea proposatzen dugu, ebaluatzeko jarduera zerbait dinamikoa, sortzailea eta ludiko izatea bilatzen delarik.

Ebaluaketa-pentsamendua pizteko tresna gisa, hitzak sortzeko irudiak proposatzen dira (koadroak, marrazkiak, koloreak, paisaiak, sinboloak... eta baita testurak, soinuak eta halakoak ere).

EBALUAZIOA

Oinarrian dugu ebaluatu nahi dugunaren eta alderaketarako erabiliko dugun elementuaren arteko erlazioa; xehetasunak behatu eta helburuak zein diren jakin ondoren, irizpideak ezarri beharko ditugu eta bilatu bat etortzeak, bat ez etortzeak, antzekotasunak, desberdintasunak... Ebaluaketak arrakasta izan dezan, beharrezkoa da argi eta garbi adieraztea zer den ebaluatu behar duguna eta honetarako, irudi edo objektuak erabiliko ditugu eta bi galdera egingo zaizkie partaideei:

- Zer iruditu zaizu saioa orokorrean?
- Nola sentitu zara saioan zehar?



Behin galdera botata, hainbat objektu aurkeztuko zaizkie partaideei eta ikasleek horietatik bat aukeratu beharko dute; garrantzitsuena, aukeraketa horren zergatia azaltzea da (denboraren arabera jarduera luzatu edo moztu daiteke).

ERANSKINAK

1.ERANSKINA: BEHATZAILEEN JARRAIBIDEAK

1. Partaidetza: Nola esango zenuke izaten ari dela taldearen partaidetza? (pertsona guztiak ari dira hitz eginez parte hartzen, batzuk ez dute hitz egiten baina adi entzuten dute...)

2. Arauak: Hasieran, saioa ondo joateko guztion artean adostu ditugun arau edo puntuak errespetatzen ari dira?

3. Elkarrizketa: Nolakoa esango zenuke izaten ari dela elkarrizketa eta taldea egiten ari den ekarpenak? (batzuk besteei erantzuten diete, norbaitek hitz egiten duenean aurrekoak esandakoa kontuan hartzen du, partaideek egiten dituzten ekarpenek ez daukate bata bestearekin zer ikusirik, ekarpenak ondo argudiatuak daude...)

4. Elkarrizketa: Zeintzuk dira, zure ustez, elkarrizketa erraztu edo oztopatu duten puntuak?

ERANSKINAK

5. Elkarrizketa: Uste duzu elkarrizketaren bidez taldeak aurrera pausoak eman dituela? Hau da, uste duzu abiapuntua –pertsonek hasieran zituzten ideia eta iritziak, adibidez- bukaeran iritsi garen puntuaren berdina izan dela?

6. Gaiak: Zeintzuk dira elkarrizketan zehar landu diren gai garrantzitsuak?

7. Hezitzaileak proposatutako galderak: Zer galdera mota egiten ditu elkarrizketa gidatzen ari den pertsonak? (Galdera itxiak –erantzun zuzen bakarra dutenak- edo orokorrak dira? Pertsona bati zuzenduak daude edo talde guztiori planteatzen zaizkio? Egokiak iruditzen zaizkizu? Zein izan daiteke galdera horiek duten helburua? Uste duzu taldea osatu duten pertsona guztien parte hartzea bultzatzen dutela?...)

8. Ondorioa: Taldeak ondorioren bat atera du?

ERANSKINAK

2.ERANSKINA: DIALOGOAREN PLANA

- Zertaz hitz egiten du laburmetraiak? Zeintzuk uste duzue direla mahai gainean ipintzen dituen gai garrantzitsuak? (aurreiritziak, diskriminazioa, klase sozialak)

AURREIRITZIAK

- Norbaitek ipini dezake adibideren bat edo batzuk aurreiritziak nagusi diren beste egoera batzuenak? Zeintzuk dira amankomunean dituzten puntuak (edo zer behar du zerbaitek aurreiritzi bat izateko)?
- Pertsona guztiek ditugu aurreiritziak? Posible da aurreiritzirik ez izatea?
- Zergatik ditugu aurreiritziak? Nola eraikitzen dira? Munduaren beste puntan biziko bagina, berdinak izango lirateke?
- Aurreiritziak onak edo txarrak diren esango zenukete? Bi gauzak izan daitezke aldiberean?
- Aurreiritziek bizikidetza erraztu edo oztopatzen dutela esango zenukete? (erantzunen adibideak laburmetraiko momentu desberdinak aukeratuz jarri)

ERANSKINAK

DISKRIMINAZIOA

- Zergatik uste duzue, laburmetraiaren lehen atalean emakumea beldurtuta bezala agertzen dela? Zer arrazoi dauzka horretarako?
- Uste duzue bere jarrera momenturen batean baztertzailea/diskriminatzailea dela? –zer pasatzen zaio burutik bultzatu eta lurrera erortzen denean?, kartera topatzen ez duenean?, gizon beltza entsalada jaten ikusten duenean?
- Zer ezaugarri bete behar ditu jarrera edo egoera batek diskriminatzailea izateko?

OROKORRAK

- Nola baloratzen duzue emakumearen jarrera eta erantzuna gizon beltza entsalada jaten ikusten duenean? Egoera horrek zer esaten digu emakumeari buruz?
- Eta alderantziz; nola baloratzen duzue gizon beltzaren erantzuna emakumea bere plateretik jaten hasten denean?

ERANSKINAK

- Zerk eraman du emakumeen gizon beltza jaten ari zen entsalada berea zela pentsatzera? Pertsona guztiok bizi dezakegu benetakoa ez den egoera bat benetakoa balitz bezala?(errealitate bakarra dago?)
- Emakumeak aurretik beste bizipen batzuk izan balitu, uste duzue berdina gertatuko litzaiokeela? Hau da, gure bizipenak baldintzatuak daude?
- Emakumearen erantzuna justua iruditzen zaizue? Zerk egiten du egoera bat justua izatea?
- Zuek emakumea bazinate eta egoera horretan bazeundeten, nola erantzungo zenukete?
- Nork uste duzue hobe erantzuten duela bi protagonistak entsaladaren inguruan topo egiten dutenean?
- Zergatik uste duzue gizonak emakumeari kafe bat ekartzen diola? Zer uste duzue emakumeak pentsatu eta sentitzen duela gizonak kafea aurrean ipintzen dionean?
- Nola laburtuko zenukete esaldi edo titular batean laburmetraiak helarazten duen mezua?

EGILEA:



BABESLEA:

